# Bestelako Xedapenak

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

**6320**

EBAZPENA, 2009ko urriaren 8koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateari emandako diru-laguntza bat murrizteko dena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerketa-proiektuak argitaratu eta gauzatzeko edo saio gisako ekintzak egiteko diru-laguntzei buruzko 2008ko deialdiaren babesean eman zitzaion diru-laguntza (proiektua: «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar»).

20/2008 espedientea

Ikusi dugu Euskal Herriko Unibertsitateari buruzko txostena, proiektu honi dagokionez: «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar». Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerketa-proiektuak argitaratu eta gauzatzeko edo saio gisako ekintzak egiteko diru-laguntza jaso zuen, 2008. urtean.

AURREKARIAK

***Lehenengoa***.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2008ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerketa-proiektuak argitaratu eta gauzatzeko edo saio gisako ekintzak egiteko diru-laguntzak arautu ziren 2008. urterako (2008ko ekainaren 18ko EHAA, 115. zk.).

***Bigarrena***.– Eskabideak aurkeztu ondoren eta horiek Hautaketa Batzordeak aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak ebazpena hartu zuen 2008ko azaroaren 4an (2008ko azaroaren 27ko EHAA, 228. zk.). Ebazpen horren I. eranskinean, Euskal Herriko Unibertsitateari 17.504,32 euroko diru-laguntza eman zitzaion proiektu hau egiteko: «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar».

***Hirugarrena***.– 2008ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren 17.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, diru-laguntzaren % 50 (8.752,16 euro) laguntza onartu ondoren ordaindu zen, eta gainerako % 50 diruz lagundutako jardueretan izandako gastu guztiak justifikatu ondoren ordainduko zen. Horretarako, artikulu horretan aipatzen den diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko agiriak aurkeztu beharra zegoen 2009ko otsailaren 28 baino lehen.

# Otras Disposiciones

**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

**6320**

RESOLUCIÓN de 8 de octubre de 2009, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se disminuye el montante global de la subvención concedida a la Universidad del País Vasco-UPV al amparo de la convocatoria de subvenciones a la publicación y realización de trabajos de investigación y acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2008 (Proyecto «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar»).

Expediente n.º 20/2008

Visto el expediente relativo a la Universidad del País Vasco-UPV como entidad beneficiaria de una subvención a la publicación y realización de trabajos de investigación y acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2008, dirigida a la realización del Proyecto «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar»,

ANTECEDENTES DE HECHO

***Primero***.– Mediante Resolución de 19 de mayo de 2008, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, (BOPV n.º 115, de 18 de junio de 2008), se reguló la concesión de subvenciones a la publicación y realización de trabajos de investigación y acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2008.

***Segundo***.– Previa presentación de las solicitudes y análisis y evaluación de las mismas por la Comisión de Selección, la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer dictó Resolución de fecha 4 de noviembre de 2008, (BOPV n.º 228, de 27 de noviembre de 2008), en cuyo anexo I se concedía a la Universidad del País Vasco-UPV una subvención por importe de 17.504,32 euros, para la realización del Proyecto «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar».

***Tercero***.– De conformidad con lo establecido en el artículo 17.1 de la Resolución de 19 de mayo de 2008, el abono del 50% de la cuantía de la subvención (8.752,16 euros), se realizó tras la aceptación de la misma, debiendo de pagarse el 50% restante una vez justificados todos los gastos generados por las actividades subvencionadas, mediante la presentación, antes del 28 de febrero de 2009, de la documentación justificativa del destino de la subvención que señala el referido artículo.

Entitate onuradunak aurkeztutako agirietan ikusten denez, diruz lagundutako jarduerei dagozkienez, 17.174,23 euroko gastuak justifikatu dira dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzerakoan; gainerakoa, 330,09 euro, justifikatu gabe dago.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

***Lehenengoa***.– Ebazpen hau hartzeko eskumena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari dagokio, 2008ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren 14.1 artikuluan diru-laguntzak emateko prozedura amaitzeko organo berari ematen zaion eskumenarekin korrelazioan.

***Bigarrena***.– 2008ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren 17.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, gastua egiaztatzeko agirien bidez (fakturak, ordainagiriak, etab.) justifikatzen den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko zaio diru-laguntzaren zenbatekoari.

Oinarri horiek eta oro har eta kasu honetan aplikatzekoak diren oinarriak ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Euskal Herriko Unibertsitateari «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar» proiekturako emandako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztea, justifikatutako gastuen arabera. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2008ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez egindako deialdiaren babesean eman zitzaion diru-laguntza (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerketa-proiektuak argitaratu eta gauzatzeko edo saio gisako ekintzak egiteko diru-laguntzei buruzko 2008ko deialdia; 2008ko ekainaren 18ko EHAA, 115. zk.). Diru-laguntza hori 2008ko azaroaren 4eko Ebazpenaren I. eranskinean dago.

Entitate onuradunaren diru-laguntza 17.174,23 eurokoa izango da, 330,09 euro kendu baitira gainerako gastuak ez justifikatzeagatik.

***Bigarrena***.– Entitate onuradunari 8.752,16 euro ordaindu zaizkionez, diru-laguntzaren bigarren zatia 8.422,07 eurokoa izango da, diruz lagundu diren jardueretan izandako gastuak behar bezala justifikatu direnez. Bigarren zatia ordaindu gabe dago.

De la documentación aportada por la entidad beneficiaria resulta que en el momento de realizar el segundo pago de la subvención, se han justificado gastos realizados con relación a las actividades subvencionadas por importe de 17.174,23 euros, quedando sin justificar el resto por un importe de 330,09 euros.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

***Primero***.– La competencia para dictar la presente Resolución corresponde a la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer en correlación con la competencia atribuida al mismo órgano por el artículo 14.1 de la Resolución de 19 de mayo de 2008 en cuanto a la atribución de la competencia para la finalización del procedimiento de concesión de las subvenciones.

***Segundo***.– En aplicación de lo establecido en el artículo 17.2 de la Resolución de 19 de mayo de 2008, cuando la cantidad justificada mediante documentos acreditativos (facturas, recibos,…etc.) fuese inferior a la de la ayuda concedida se efectuará la correspondiente y proporcional disminución en el montante de la subvención.

Vistos los fundamentos mencionados y las demás disposiciones de general y pertinente aplicación,

RESUELVO:

***Primero***.– Disminuir de forma proporcional a la justificación del gasto realizado, el montante global de la subvención concedida a la Universidad del País Vasco-UPV para la realización del Proyecto «Las necesidades de las niñas ante la competición en el deporte escolar», al amparo de la convocatoria realizada por Resolución 19 de mayo de 2008, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, (BOPV n.º 115, de 18 de junio de 2008), por la que se reguló la convocatoria de subvenciones a la publicación y realización de trabajos de investigación y acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2008, y referida en el anexo I de la Resolución de 4 de noviembre de 2008.

La cuantía global de la subvención que le corresponde a la entidad beneficiaria queda establecida en 17.174,23 euros, habiéndose disminuido en la cantidad de 330,09 euros por falta de la correspondiente justificación.

***Segundo***.– Habiéndose abonado ya a la entidad beneficiaria 8.752,16 euros, se procederá al segundo pago de la subvención por un importe de 8.422,07 euros, que corresponde exactamente a la cantidad que, pendiente de pago, ha sido debidamente justificada como gasto realizado con relación a las actividades objeto de subvención.

***Hirugarrena***.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa betez, ebazpen hau interesatuari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Jakinarazten zaio ebazpen honek administrazio bidea amaitzen duela eta horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; hala agintzen da uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 8a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

***Tercero***.– Notificar la presente Resolución en cumplimiento de lo establecido en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, para su conocimiento y efectos oportunos, haciéndole saber que pone fin a la vía administrativa y que contra ella podrá interponer recurso potestativo de reposición o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación conforme a lo establecido en el artículo 8.3 y en los párrafos 1 y 4 del artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso- Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2009.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.